


3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK


Gure enpresak hainbat **aliantza** izango ditu, alde batetik beren iragarkiak jarri nahi dituzten **enpresekin**, hauek batez ere gazteentzako diren iragarkiak eskaini ahal izango dituzte gure plataforman (plataforma erabiliko dutenak ikasle gazteak izango dira) eta bestetik, **irakasleekin**, hauek, berriz, plataforman zintzilikatuko ditugun materialak prezio baten truke erraztuko edota emango dizkigutelako.

Idea aurrera eramango dugunon arteko akordio edo aliantzak ere egin ditugu eta bakoitzak dituen gaitasun eta gustuen arabera funtsezko baliabide bat jartzea erabaki dugu:

- **Naroa:** aplikazio informatikoa sortuko du, berak dituen infomatika ezagutzengatik.
- **Paulak:** irakasleekin hitz egingo du informazioa biltzeko, hau da, baliabideak eskuratzeko, komunikaziorako duen gaitasuna dela eta.
- **Naiarak:** enpresekin hitz egingo du iragarkiak lortzeko, marketingean dituen ezagutzen ondorioz.
- **Haizeak:** kontuak eramango ditu, matematikarako duen gaitasuna dela eta.



NAROA



HAIZEA



NAIARA



PAULA